

2021eko **Batzar** **Nagusia**

Gai-zerrendako puntua: 13

Talde teknikoa zentralizatzeak ekar ditzakeen ondorioak aztertzea

AURKIBIDEA

Proposatutako alaketaren testuingurua	1
Batzar Nagusiak onartzeko proposamena	3

Proposatutako aldaketaren testuingurua

Talde teknikoa zentralizatzek ekar ditzakeen ondorioak aztertzea [mozioa](#) tokiko taldeen topaketan landu da, batetik, eta, bestetik, bazkideek, Kontseilu Errektoreak eta talde teknikoak egindako bilera birtual batean.

Tokiko taldeen topaketan, lehen ariketa bat egin zen aztertzeko ea zein aukera, ahultasun, indargune eta mehatxu ekarriko lituzkeen Gironan talde tekniko zentralizatu bat izateak, Som Energiak lurraldearekin dituen harremanei dagokienez.

Horren ondoren egindako bilera birtualak mozioa aurkezteko arrazoiak ulertzen lagundu zuen.

Eztabaidan zehar ikusi zen jendeak ez zekiela Som Energiaren talde teknikoak nola funtzionatzen duen, zer antolaketa-eredu duen eta nola kohesionatzen den bere zereginak garatu ahal izateko.

Era berean, garrantzi handia eman zitzaion egoitza nagusitik kanporako lan-eskaintzak aurkeztuz gero horrek helburu jakin bati erantzungo diola: Som Energiak trantsizio energetiko eraldatzailea bultzatzeko garatzen dituen ekintzei balio erantsia lortzeari, dagoeneko mahai gainean ditugun erronkei dagokienez, bereziki. Halakoek oso lotura estua dute tokian tokiko esparrutik banatuta dauden egitasmoekin, herritarren energia-komunitateekin eta energia berriztagarrien komunitateekin, besteak beste.

Som Energia kontsumo-kooperatiba bat da, eta bere helburua energia-eredua aldatzea da, kontsumo- eta sorkuntza-ekintzen eta ekintzokin lotutako zerbitzuen bidez. Som Energia ez da lan-kooperatiba bat, halakoen helburua enplegua sortzea baita.

Eztabaidari eta hainbat ekarpeni esker, 2021eko Batzar Nagusian bozkatzeko aurkeztuko den mozioaren testua berridatzi egin da.

Batzar Nagusiak onartzeko proposamena

2021eko Batzar Nagusiari honako ekintza hauek aurkeztuko zaizkio, Som Energiak ekintzok garatzearen alde edo kontra dagoen bozkatu dezan:

1. Informazioa ematea, bazkideek jakin dezaten talde teknikoa nola antolatzen den (kohesiorako elementuak azpimarratuta) eta Gironan zein profil aurki daitekeen eta zein ez aztertzea. Azaltzea zein diren lan-baldintzak malgutzeko eta lana eta familia-bizitza uztartzeko neurriak.
2. Trantsizio energetiko berriztagarri eta banatuak dakartzan erronkei dagokienez, nola azkartu dezakegun Som Energiak lurraldean parte hartuz egiten duen ekarpenaren balioa, honako ekintza hauek bidez: profesionaltasuna eskaintzea, egoitza nagusitik kanpo lanpostuak sortuta, tokiko proiektuak garatuta (horien artean nabarmentzen dira herritarren energia-komunitateak, energia berriztagarrien komunitateak) eta lanpostuak proiektuak garatzen diren lekuetan sortuta.